

**TURISMOA ETA NEKAZARITZA ETXEAK:
ETORKIZUNEN SEKTOREAK EUSKAL HERRIAN**

2001. urtean Hego Euskal Herriko ekonomia moteldu egin zela ondorioztatzen du Euskadiko Kutxak, bere urteroko txostenetan. Hala ere, sektore guztiek ez zuten izan bilakaera bera. Euskadiko Kutxaren arabera, eraikuntzak izan zuen hazkunde handiena. Bestalde, nekazaritzak emaitza kaskarrak lortu zituen, ekoizpena gutxitu eta nekazaritza produkzioaren prezioak merkatu egin zirelako. Abeltzaintzan, emaitza hobekiak lortu ziren, oro har, eta, arrantzari dagokionez, ontzi nahiz arrantzale kopuruak murriztu egin ziren. Industriak ez zuen gorabeherarik izan EAEn; Nafarroan, aldiz, behera egin zuen. Gutxienez hazi zen sektorea EAEn, zerbitzuen sektorea izan zen. Hala ere, turismo sektorearen diru sarrerak %10 handitu ziren.

Hamarkadetan zehar industria Euskal Herriko zati handi baten bereizgarria izan bada ere, apurka-apurka sektore hau indarra galtzen joan da. Galera hau hirugarren sektorearen hazkundearekin orekatu da apur bat.

Batik bat turismoak indar handia hartu du azken urteotan. Are gehiago, zenbait zonalde garatzeko funtsezko baliabidea bihurtu da, batez ere herri txikiak garatzeko, eta, itxura guztien arabera, sektore honen garrantzia are eta gehiago izango da etorkizunean. Euskal Herriaren kokapen geografikoak eta di-

tuen baliabide kultural, gastronomiko eta naturalek erakusten dute turismoak hazkunde iraunkorra izango duela gure artean.

Iparraldean turismoa orain dela asko deskubritu bazen ere (Donibane Lohitzunek eta Biarritzek, esaterako, aspalditik erakarki dituzte atzeritarren bisitak), Hegoaldean orain dela gutxi hasi dira sektore hau garatzen eta dagokion garrantzia ematen. Bilakaera honen adibiderik argiena Guggenheim-Bilbao Museo da. Museoaren jarduera 1997 urtearen amaieran hasi zen, eta ordutik hona leku askotako hiritarrek Euskal Herria mapan kokatzen ikasi dute. Museoak lehen bost urte hauetan bost milioi bisitari baino gehiago erakarki ditu, zabaldu baino urtebete lehenago egin ziren aurreikuspenak alde handiz gaindituz. Aurreikuspenek 450.000 bisitari etorriko zirela urtean iragarri baitzuten.

Eta ez bakarrik Bilbon, Euskal Herri osoan barrena (Donostian, Donibane Lohitzunen, Gasteizen...) izugarri egin du gora turismoak. Datu ofizialen arabera, azken bost urteotan turismoak %23ko hazkundera izan du EAEn, eta hori dela eta, handituz doan aberastasun eta lan iturri bilakatu da. EAEn turismo-jarduerak 22.600 laguni ematen die gutxi gora-behera lana (horietatik 17.000 zuzeneko lanpostuak dira eta 5.000 zeharkakoak); hau da, lan-okupazioaren %3 da. Ondorio zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartuta, turismoak EAEn Barne Produktu Gordinaren %3,5 sortzen du. Era berean, Iparraldeko mozkin ekonomikoaren %20 turismotik dator gaur egun.

Kostaldean zein barnealdean, turismoaren garrantzia handitu egin da, eta erasan handia du profesional anitzen jardueretan, zein herritarren eguneroko bizimoduan. Turismoaren eragina nabaria da garapen ekonomikoan, azpiegiturretan edo ingurugiroan. Guggenheim-Bilbao Museoarekin gertatu dena, Euskal Herrian turismoak duen etorkizunaren adierazpen ikusgarriena baino ez da, izotz-mendiaren tontorra baino ez.

Turismoaren igoeraren ondorio argiena da nekazaritza etxeen ugartzea. 2002ko uztailean ia 10.000 lagun izan ziren

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko nekazari etxeetan. Joan den urteko uztailean baino %21 bisitari gehiago gerturatu ziren 2002. urtean EAEko nekazari etxeetara. Gipuzkoan, %29 igo da bisitarien kopurua, Bizkaian %21, eta Araban, %1 gutxitu da.

Nafarroari dagokionez 415 nekazaritza etxe daude eta 2002ko uztailean 6.615 lagun izan ziren hauetan ostatu hartu zutenak. Pertsona bakoitza, batez beste, host egun baino gehiago izan zen etxeren batean, eta %45 baino altuagoa izan zen logelen betetzea. Joan den urteko uztailean nekazaritza etxe gehiago zeuden, baina ia 1.200 lagun gutxiagok hartu zuten ostatu.

Arrazoi asko dago pentsatzeko nekazaritza etxeek eta, oro har, turismoak garrantzi handiagoa izango dutela Euskal Herrian etorkizunean:

- Iraultza teknologikoak gure lan egiteko moduak, gaur egun ezagutzen ditugun lanbideak, eta, honekin batera, baita gure beharraren produktibitateak ere berraldatzen ari da. Teknologia berrien ondorioz, lan espezializatuagoak eta teknifikatuagoak egingo ditugu, eta epe ertainean 35 orduko lan-astea errealitatea izango da, gutxienez Europako Batasuneko Estatuetan. Aisialdirako denbora gehiago izango dugu, eta horrek gure atsedenaldea asetzen saiatuko diren enpresa, zerbitzu eta produktu ugari eta sofistikatuak ugaritzea ekarriko digu. Turismoak eta honen inguruan garatzen ari den sektore ekonomikoak indar gehiago hartuko dute etorkizunean.

- Gure gizartean bultzatzen ari diren ekoizpen ereduak lurrraren, itsasoaren eta, oro har, naturaren suntsipena ekarri dugu. Teknologia berriak gure amaigabeko kontsumo nahien zerbitzuan jarri dira, produktibismoa eta kontsumismoa indartuz. Eta horren ondorio ankerrenak dira, naturaren gehiegizko narriadura eta kutsadura maila izugarriak sortzen direla. Ulertzekoa da, beraz, turismo ekologikoa (landetxeak, bainu-etxeak, atsedeen etxeak...) egiteko inoiz baino gogo biziagoa izatea. Gizakiak faltan duena desiratzeko joera duenez, berez-

ko gauzak erabiltzeagatik, elikagai naturalak kontsumitzeagatik, kutsatu gabeko toki paradisuarrak ezagutzeagatik gehiago ordaintzeko prest egongo da. Naturara itzultzen gaituen turismoa etorkizuneko gizartearen eskape berria izango da, eta, ondorioz, baita sektore ekonomiko garrantzitsua ere.

- Badirudi Euskal Herria oso erakargarria da nekazaritza etxeak gustuzen zaizkien pertsona motentzat. Guggenheim Museoa, paisaia, euskal kultura eta historia, euskaldunon izaera eta batez ere mundu osoan ezaguna egin den gastronomia oso garrantzitsuak dira jende hau gurera erakartzerakoan.

- Gainera, badirudi eguraldiak ez duela eragin handirik gure artera etortzen diren bisitarien artean. Gogoratu aurten eguzki gutxi eta edozenbat euri izateak, turismoa ez duela erabat kaltetu. 2002ko udako eguraldi pataala dela eta, turismoak behera egingo zuela behin eta berriz esan bazen ere; datuek diote nahiko uda ona izan dela sektore honentzat.

- Kontuan izan behar da, azkenik, turismorako azpiegitura oso handia ez bada ere, nahiko kalitate onekoa dela. Datu bat aipatzearen gogoratu Espainian 25 landa-etxek dutela kalitate agiria eta horietako zazpi Nafarroan daudela.

Arestian esan bezala, beraz, turismoak gero eta indar handiagoa hartuko du gure artean. Etorkizunean funtsezko baliabide ekonomikoa bihurtuko da. Horretarako, dena dela, beharrezkoa da Euskal Herriko turismoak dituen arazo konpontzea:

- Euskal Herriko turismoaren arazo garrantzitsuena da gure artera datorren turismo gehiena negozio turismoa dela. EAE-n adibidez, turismoko etekinen %30 astialdikoa da, eta negozioena, aldiz, %70. Horrek esan nahi du Euskal Herrian egiten duten egonaldia oso laburra dela (bat edo bi gau). Zentzu honetan, ahalegin berezia egin behar da astialdiko turismoa gartzearen alde, eta horrekin, egonaldia luzatzearen.

- Zenbait tokitan turismoa bultzatzeko nahiko azpiegitura ahula dago. Euskal Herriak turismoa erakartzeko kokapen ge-

ografiko egokia eta haliabide kultural, gastronomiko eta natural ugari baditu ere, zenbait tokitan hotel, museo, eta, oro har, turismoa erakartzeko azpiegitura urria dago.

- Landa turismoak arazo ugari ditu: besteak beste, ez da behar bezalako publizitaterik egiten, sarri askotan, ez dituzte sarbide, ikur eta aparkaleku egokiak eta turistei alternatiba eta informazio gutxi eskaintze zaie (bisita turistikorik ez dago, adibidez). Zentzu honetan, beharrezkoa da nekazaritza turismoan lan egiten duten guztiak –hotelak, kanpinak, landa-etxeak, ja-tetxeak– koordinatzea eta profesionalizatzea. Bestela ez zaio sektore honi behar bezalako etekinik aterako.

Patxi Juaristi